

**MIKEL GARIKOITZ EUSKALDUN SANTUAREN
JAIOTZAREN 2. MENDEURRENA (1797-1997)**

1. Sarrena:- Menduurena

Euskaldun jator, santu apal eta apostolu sutsu baten bigarren menduurena aurtan ospatzen denez gero, ezin *Karmel*-ek beraren izena eta izana ahaztu: **Mikel Garikoitz**.


Orain bi mende, Iraultzak eta gerrak, Elizaren aurkako mugimendu sozial-politikoak eta ideologiak nagusitzen hasi zirenean, Fedea ezerezero eta hiltzera zihoala zirudien... Gure garaian ere gerrak eta sarraskiak, "eskertiarrek" nahiz "eskuindarrek" eraginak izan, beti dira elizaren kaltetan..., eta orain batez ere komunikabideen indarrez eragin gaizto hori bortitzagoa da... Garai hartan etorkizuna ilun ikusten zen eta orain ere ez argiago...

Orduan Euskal kristautasunak, batez ere iparraldekoak, erantzun ezin hobea eman zuen, Katolikoek artean berpizkundea argitsu baten hasiera markatuz... Horretan bereziki ahalegindu zenetariko bat Mikel Garikoitz dugu... Gaur ere erantzun sakona ematen ari da Eliza, Euskal Eliza..., oztopoak gaitzitzen eta Kristo berpiztua munduari erakusten... Hala ere gaurko arazo latzen artean Euskal Kristautasunak erantzun handiagoa eta apostolikoagoa eman beharra du...

Bere garaian Mikel itxaropena sortuz agertu zen; santuak maitale handiak izanik, itxaropena beraien maite ahatsuegan, Jainkoagan jartzzen dute... Eta horixe nabari da Mikel Garikoitz apostoluagan. Gaurko gizona dugu Mikel: Egoera honetan itxaropena sortzen ari dena...

Urte hauek aberatsak izan dira: santutasunean, jakintzan, herriko fedean, baita euskaldunen bihotz zabaltasunean ere, Euskal Herri barruan nahiz kanpoan milaka

misiolariren bidez... Batzuk bakarrik aipatzearren, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko, batez ere santutasunean ospetsuak izan diren hauek aipatuko ditugu: Mikel Garikoitz santua (1797-1863), Balentin Berrio-Otxoa santua (1827-1867), Louis Edouard Cestac (1801-1868), Esteban Adoaingoa (1808-1880), Santa Vicenta Maria Lopez Bikuña (1847-1890), Charles Lavigerie (1825-1892), Rafaela Ibarra Aranbarri doatsua (1843-1900), Maria Antonia Bandres Elozegi doatsua (1898-1919), Maria Jesusen Bihotzarena (1842-1912), Kandida Maria Jesuse-na dohatsua (1845-1912), Ramon Zubieta (1864-1921), M. Angeles Sorazu (1873-1921), Frantzisko Garate dohatsua (1851-1929), Margarita Maria Lopez Maturana (1884-1934), Joan Bizente Jesus-Mariarena Zengotita-Bengoa (1862-1943), etab.



Ibarreko eliza

2. Bizitzako zertzelada batzuk (1797-1863)

Mikel, Arnaud Garikoitz eta Gratiene Etcheverry-ren semea, Ibarra, Nafarroa Beherean jaio zen, iraultza garaian Direktorioak Iparraldeko egoera erlijioso-politikoa kinka larrian jarri zuen garaian. Gorputzez haur sendoa, euskal baserriko giro sozio-erlijiosoan bizi izan zen. Euskaraz irakurtzen ikasi eta lehen ikasketak egin zituen.

13 urte zituela, morroi egon zen baserri batean. Gazte zela apaiz izan nahi zuen, baina gurasoek ez zuten halakorik entzun nahi txiroak zirelako eta ikasketak ordaintzeko dirurik ez zutelako. Baina bide egokia aurkitu zuen: apaiz adiskide baten morroi izatea, era horretan, bide batez ikasketak egiteko aukera izanik. Horrela aritu zen ikasten Donapaleun eta Baionan; gero Aire-ko seminariora eta Akize-kora aldatu zen, azken honetan filosofia eta teologiako goi-ikasketak buruturik. Irakasle izendatu zuten. Apaiz egin ondoren (1823) Kanboko parrokiara bidali zuten; hemen apostolutzako gar bizi-bizia agertu zuen, batez ere aitorlekuan eta «apez saindua» zelako ospea zabaldu zen; hemen sortu zuen Jesusen Bihotz txit Santuaren ermandadea.


1825.ean Betharrango seminariora bidalia izan zen, arlo guztietan bertako arima bilakatu zelarik: irakasle, diruzain, eta praktikan arduradun nagusia. Doktrina jansenisten aurka bihotz-bihotzez aritu zen, sarri jaunartzearen alde lan eginez. Urteen buruan, apezpikuaren egitarauaren arabera ikasleak lekuz aldatzean, hutsik geratu zen Béharram. Une horretan hasi zuen Mikelek Jesusen Bihotz txit Santuaren Apaizen Institutuaren fundazio-lana: bertako apaizak, batez ere, Mikel, etengabeki sermoiak egiten, parrokia eta zentroetan zehar gogo-jardunak ematen eta eskolak eraikitzen saiatu ziren. Mugimenduak indarra hartu zuen eta urte gutxiren buruan nahikoa apaiz ziren; apezpikuak apaiz batzuk Amerikara bidaltzeko eskatu zien. Mikelek ardura handia jarri zuen apaiz-misiolari hauen prestakuntzan, neurri handi batean euren pastorgintza, Ame-

rikako euskaldun migrarien artean egin zutelarik. Betharramgo antzinako seminarioak, santuaren ekimenez, bizitasun handia hartu zuen: santutegian Mikelen izpiritua somatzen zen. Hemen hil zen 1863.ean, 1923.ean doatsu aitortua izanik eta 1947.ean santu.

Euskaldun hau, urtean baino urtean ospe handiagoa izan duenatarikoa dugu; gihartsua, apala, Jainkoari otoitzean eta apostolutza-jarduera bizian emana; haren nortasuna oso nabarmena izan da Euskal Elizan, batez ere XIX. mendeko Iparraldeko Elizan.

3. Bere mezua

Mikelen izpiritualitatea beraren bizitzatik ateratzen da: bizitza eta doktrina batera doaz. Bere bizitzan bizi izan duen mezua eta bere gutunetan maiz errepikatzen duena hau da: "Huna ni" - "Hemen nauzu", hau da, Jainkoaren maitasunaren menpe osoan jarri, haren esanetara, hark nahi duena egiteko... "Hemen nauzu" dioen santua dugu Mikel. Horrela erakusten du bere barruko joera; hemendik ateratzen du argia serorei gauza bera erakusteko. Baionako apezpikuak eta Betarramgo apaizen probintzialak gutun pastoral bat atera dute Mikelen jaiotzaren bigarren mendurrena dela eta; gutun pastoral honetan mezu hau azpimarratzen da.



Garakotxeko lurrak eta baserria

a. *"Hemen nauzu"ren Jainkoa.*

Maitasunak jaitsiarazi du Jainkoa mundura. "Salbatzailearen bihotza beti dago Jainkoaren eskuetan, *"Hemen nauzu"* esaten. Hona hemen kristautasunaren laburpena".

- **Aitak** maite gaitu (Jn. 4,10). "Jainkoak maite-maite gaitu, inor ez baita Hura bezalako Aita". Mikelen Jainkoa ez da bel-durgarria: "Jainko-izatearen muina maitasuna da... Jauna, inor ez da Zu bezalako Aita". Aitak asmo bat du: gizon-emakumeen salbamena eta zoriona.

- **Semeak** Aitaren maitasunezko egitasmoa aurrera darama. Mikelentzat Jesus da jainko-maitasunerako eskuratzen gaituen erakargarri berbera; Hura da maitatzeko jarraibide edo eredia; Hura da bide eta helburua. "Jesusek bere amaren sabeletik bertatik esaten zion Aitari: *"Hemen nauzu"*. Haren bizitza osoa esaera eta izaera honen gauzatzea izan zen.. Aitaren nahia eginez, azkenerarte hari baitza emanaz iraun zuen". Jesusen bihotza maitasun-garretan dago...

- **Espiritu Santua** dugu egiaren, santutasunaren eta indararren Espiritua; "Berak biziki jartzen du gure bihotzetan maitasunaren legea, apostoluen eta santuen bihotzetan egin zuen bezala"

"Hemen nauzu", hau da Kreazioaren misterioan sartzeko giltza, Salbamenaren giltza; gu Trinitate santuan sartzeko giltza, maitasunean sartzeko giltza.

b. *"Hemen nauzu"ren Eliza.*

"Hemen nauzu", eta "hemen nator"; "Hemen nauzu azkar, oso-osorik, ezer gorde gabe, maitasunagatik"

— "Hemen nauzu" jarreraren lehenengo ezaugarria konfiantza da. Jainkoa da bakarrik indartsu, guk harengan jarri beharra dugu geure itxaropena

— Bigarren ezaugarria Jainkoaren gonbidapenari edo deiari "hemen nauzu" erantzuteko jarrera edo prestasuna, hau da,

haren maitasun-
nahia betetzea.

Mikel santua oihu edo dei bi-
ziaren zain da-
go; hura noiz
entzungo prest:
Kristoren biho-
tzetik irteniko
garrasi edo deia-
ri, "Banator",
"Hemen nauzu"
erantzuten
dio"...


— Haren me-
zuaren hiruga-
rren ezaugarria:
ez dela ezer txi-
ki Jainkoaren
nahia tartean

denean; Hark guztia handi bihurtzen du eta "guztia da sakra-
mentu". Mikel gizon apalak ikutzen duen guztia duintasunez
eta ohorez janzten du... Maitasunak - Kristoren nahia betetzen
jarduteak guztia beste kolore batez janzten du.

Mikelen esaerak bide honetik doaz: "Banator", "Egin bedi
Jaunaren nahia", "Azkar, oso-osorik, ezer gorde gabe, maitasu-
narren", "aurrera, beti aurrera zerurarte"...

— "Hemen nauzu" jarreraz bizitzea, elizan bizitzea da eta
eliza maitatzea.. Maria dugu jarrera horren eredu: "Hona he-
men Jaunaren Mirabea"...

Nor dugu Mikel Garikoitz gaur? Itxaropenez beteriko gizona,
izpiritu berria agertzen duena, elizgizona, gar bizia eta zoriona
dariona.



Andre Mariaren santitokia Betharramen

4. Garikoitz euskaldunen maitale eta euskal idazle:

a) *Euskaldunen maitale*

— Mikel euskalduna zen eta eder zitzaion euskaldunekin harremanak euskaraz izatea. Euskaldun lekaime batzuekin batez ere euskaraz egiten zuen, horrela hurkotasuna eta maitasuna hobeki adieraziz. Horrela aritzen zen, esaterako, ahizpa Serapiarekin, euskaldunekiko bere maitasun-joera erakutsiz. Frantsesez egindako gutun batean honela diotso: “Je vous aime tous (toutes les Filles de la Crois, en particulier **eskualdunac**) dans les entrailles de Jésus-Christ”; hau da, Kristoren bihotzean guztiok maite zaituztet (Gurutzearen Alaba guztiok, baina batez ere **euskaldunak**)...

Hala ere euskaldunekiko maitasuna beste inon baino nabariago Ameriketara joandako euskaldunekin aita-bihotzez eta apostolu-bihotzez hartzen duen ardura bizian erakusten du. Izan ere, Ameriketara joandako euskaldun asko laguntza izpiritual aldetik ia bertan behera utziak ikusten ditu, eta Montevideo eta inguruetan 10.000 euskaldun edo bizi ziren.

1854an, Mikelek, Simon Guimon Uruguay-ko misiolariak eta Lacroix Baionako apezpikuak hartara eraginik, Ameriketako misioen asmoa agertu zien bere erlijiosoei; urriaren 16an batzar nagusiak gogo beroz onartu zuen. Egiteko hau ez zen baxterre erraza: prestacra, harako gogoa zuten pertsonak eta abar behar ziren... Lehen-lehenik bere burua eskaini zuen hara joateko. Baina batzarkideen ustez Mikel behar-beharrezkoa eta ordezkazina zen Betharram-en; hura, ordea, ezetzean zegoen eta bere kexua adierazi zuen apalki: “Hemen ez naiz ni ezertarako probetxugarri... Han behean zerbait egitea nahi nuke, gure euskaldunei Berri Ona iragarri”.

Ameriketako, hots, Montevideoko misioen arazoak hartzen dizkio bere bizitzako azken urteak. Egoitza bat egiteko asmotan, Didace Barbé, San Jose Ikastetxeko nagusiari idazten dio: “bihotz-bihotzez nahi nuke nik Montevideoko gure herrikideei

laguntzera joatea. Baina une egokia ez da oraindik iritsi. Horretarako misiolari euskaldunak behar ditugu eta nagusi on bat egoitza honetarako"... (163. gutuna, 1858-IX; 490. gutuna, 1859-VI-21)

Santua Montevideoko misiorako jende bila ari zen; horrela, 1960ko ekainaren 29an, Pierre Etchanchu-ri, Olorueko Karmeldarren kapilauari, gogoia berotzen dio horretarako: "Milaka euskaldun aurkituko dituzu Montevideon, gaur egun zeharo baztertuak daudenak"... Mikel bera harako gogoak ukitua dago



Aita Garikoitzen gela

(271. gutuna). Bi hilabete lehenago honela idatzi zion: "Itsasoz bestaldeko gure elizbarrutikoei, hain baztertuak direnei, laguntzera deitua zarela gogoratuz, Jainko onak misio hartara eramango dituen euskaldun bihotz-zabalei Simon Guimon-ek egiten dien deia zuri jakinarazi beharrean naiz. Hura Montevideoko bikario apostolikoaren agindupeko misiolari bat besterik ez da" (256. gutuna, 1860-IV-24).

Hurrengo urtean Barbé berari idazten dio berriro: "Nik neutarara eten gabe otoitz egingo dut, gure euskaldun gaixoentzat langileak eskatuz bai zeruan eta bai lurrian eta euskaldunik aurkituz gero haiek prestatuz. Zuk zeuk ere, ez aukerarik galdu, harako apostolu-bokazioa duten euskaldun batzuk aurkituz gero" (571. gutuna, 1861-XI-22).

Buenos Aires-en aurkitzen den Didace Barbé-k, bere aldetik, Montevideoko euskaldunak laguntzarik gabe daudela gogorazten dio santuari, eta haien artean Harbustan bakar-bakarrrik ari dela lanetan (575. gutuna, 1861-XII-28).

Oraindik mundu honetan gelditzen zitzaion urte eta erdiko bizitzan zehar, Montevideoko euskaldunen arduraz jarraitu zuen, misioa sortzeko eta unean-unean agertzen ziren arazoei aurre egiteko ahaleginetan... Honela, hil zen baino bederatzihilabete lehenago Barbé berari idazten dio, hau Montevideorako egitekotan zen eskolaren egitasmoa onartuz (612. gutuna, 1862-VII-22).

b) *Euskal idazle*

Euskal literaturan agertzen diren idazleen artean ez dugu gure Mikel Garikoitzen izenik. Hala ere, Lino Akesolok esaterako, lekutxo bat beharko lukeela uste du. Eta ez du hori santuaren aldeko sentimenduak eraginda esaten, nahiko ongi oinarriturik baizik. Egia esan, titulu hori batzuei merke eman ohi zaie, beste zenbaitek idazleen artean leku egin ahal izateko inon direnak egin behar izan dituzten bitartean. Santuei, jakina, ez die barruak agintzen literatura egitearren, artearen ederra adieraztearren idaztea. San Joan Gurutzekok bere olerki zoragarrietan gaztelaniazko poesiaren goren gailurra jotzen badu, ez da hori xedetzat zuelako, bere maiteaganako (Jainkoaganako) sentimendua adieraztean, bere artista-arimak gainez egin ziolako baizik. Hau da, ez du literatura hutsa egiteko uzi edo xederik. Hori bide batez lortzen du, bere izpiritua beren-beregi hartara jarri gabe. Gure Garikoitzek maite ditu euskaldunak,

maite du euskal kultura eta euskara. Bere-bereak zituen, izan ere. Hona Pierre Miéyaa-k haren *Correspondance de Saint Michel Garicoits* liburuaren ohar batean dioena: "c'est toute sa doctrine, sa spiritualité, qui s'est imprégnée des sucs de la terre et du sang de ses ancêtres; en elle brille et palpite l'âme basque" (ha-



Aita Garikoitzen argazki bakarra, 64 urte dituala, 1861an

ren doktrina guztia eta haren izpiritualitatea lurraren kutsuaz eta beraren arbasoen odolez ase da; euskal arima dago han diz-diz eta pil-pil) Baina hura apostolutzari emana zen eta egiteko horretan euskaraz idatzi beharrean gutxitan aurkitu zela esan behar. Dena dela, euskal arima horrek gainez egiten zion eta edozein unetan tartekatzen zituen, frantsesez ari zela ere, euskarazko hitzak, esaldiak, gutun puskek etab. Kemenik gabe eta eroriak zirenei gogoia pixka bat altxatzeko "en avant toujours!" esapidea erabiltzen zuen maiz. Pierre Miéyaa-k dio, hori euskal esakune honen itzulpena izan daitekeela: "*Bethi aitzina, / zuzen-zuzena / dabil Eskualduna*".

Harira itzuliz, zer idatzi zuen Mikel Garikoitzek euskaraz? Garbi dakiguna hau da: hainbat gutun puska utzi dizkigula, geroxeago hitzez hitz agertuko ditugunez. Honen guztionen lekukotasuna goian aipaturiko liburutik jaso dugu. Hartaz *Karmel-en* idazlan bat egin ahal izateko, dirudienez, iturri bera erabili zuen Lino Akesolok honela diosku:

“Etxera bialtzen zituen kartak euskerazkoak izango zituen, noski, batez ere aita zarrari bialitakoetan euskera utsa erabiltzen zuela osoan siñestekoa da. Serorei ere euskeraz idazten zekienak etxeckoekin ez zuen bestera egingo. Baiña ez zaigu guri bat ere eldu. Serorei bialitakoetan puska batzuk baizik ez” (*Karmel 1989-4*).

Alabaina heldu zaizkigun gutun puska batzuk eta etxera egingo zituenak eta galduak direnak ez lirateke aski Mikel Garikoitz euskal idazletzat hartzeko... Badu besterik ere: *Amodiozko deia Jesusen bibotz sakratuac guiristino leialei* du izenburua eta 1825ean Baionan argitaraltua izan zen. Pierre Miéyaa-k Mikel Garikoitz eta Jauretche-k elkarlanean egindakotzat jotzen du. Larresoron irakasle zela ezagutu zuen Garikoitzek Jauretche. Kanbora deitu zion hitzaldiak egitera. “Ils ont collaboré à rédaction du manuel de la de la confrérie du Sacré-Coeur, en basque *Amodiozko deia Jesusen bibotz sakratuac guiristino leialei*”. Eta segidan honako hau diosku: “De nombreuses expressions navarraises indiquent bien que le teste est dû surtout à la plume du saint” (hainbeste nafar-hitzek ongi adierazten dute testua batez ere santuaren lumari zor zaiola).

Bibliografia aztertu dutenek ez digute auzia guztiz argitzen. Lino Akesolok dioskunez, Lafittek aipatzen du lehenengoz. Aita Lino berak, aurreraxeago, argitu gabeko beste bibliografi arazotxo bat dakarkigu. Honela dio: “Andik sei urtera, 1831n agertu zan Cluzeau beraren baithan gai bera duen liburua, 502 orrialde dituen. (...). Eta au nabarmengarria: liburu onek, 1831koak, titulutzat ez baña, liburuaren sarreratzat Miéyaak eman duen titulua berbera dakar: *Amodiozko deia Jesusen bibotz sakratuac guiristino leialei*.”

Beraz badegu emen 1825ean agertu zan liburuaren aztarren bat. Biak izan daitezke idazle biek egiñak, eta 1831koa 1825ekoaren bigarren edizioa geitua ote da?”

Guk liburu horren arrastoan eta aipaturiko arazotxo horiek argitu nahirik, Iparraldean batean eta bestean ate-joka jardun

genuen; egia esan, asti handirik gabe, eta ez genuen argibiderik lortu. Arratsalde berean Betharram-eraino joan ginen, baina esku-hutsik itzuli ginen zorigaitzez. Agian, hurrengo ahaleginak izan dezake fruitu hobetik...

Nola agertzen zaigu Mikel Garikoitz bere gutun-puska horietan? Gartsu, maitasunez, gogo ahulei adore emanez, arduratsu, arnasa ematen... Bere lehengusu Jean-Baptiste Etcheberry-ri frantsesez idatzirik gutun batean ez duela berarengan aurkituko, diotso, **caracoistar eçacholtasuna** delakoaren izpirik ere. Dirudenez, Garikoitzarrak ez ziren sentimendu goxoetara isuriak, serio eta hotz samarrak baizik, hau da, bihotza baino burua gehiago nabarmentzen zen haiengan. Gure santuaren gutuntan ez da izaera hori nabari, bestetara baizik. Lino Akesolok ere hori azpimarratzen du haren gutunetan: "Biotz biotzetik irtendako kartak dira Garikoitzar onenak. Nori idazten dion, aren edozertaz arduratzen da: osasunaz, senide eta etxekoez, eta barruan duen gogo-giroaz".

Euskara aldetik, bere baxenafartar euskara erraza darabilela iruditzen zait; eguneroko eta ahozko hizkeran erabiliko lukeenaren antz-antzekoa. Ez du garbi eta dotore idazteko xederik. Berez-berezko jarioz mintzo da, hitzetik hortzera, apaindura eta dotoreziarik gabe. Batzuetan frantsesa eta euskara nahasian darabiltza. Ortografia ere arautu gabea darabil, baina berak baiditu nolabaiteko arauak, ongi betetzen dituenak...

5. Mikel Garikoitzen gutunetako euskarazko testu laburrak

Goian esan dugunez, Pierre Miéyaa-ren *Correspondence de saint Michel de Garicoit* argitalpenetik, Tarbes-Bordeaux 1959-1975, I. eta II. liburukietatik harturik daude. Eta hitzez hitz jarriko ditugu:

19. gutuna (bere lehengusu Jean-Baptiste Etcheberry-ri: 1841-VIII-5):

"caracoistar eçacholtasuna"

21. *gutuna, oinarrian euskal esaera hau duen testu frantsesa:*
 ((Bethi aintzina,
 zuzen zuena,
 dabil eskualduna)).

125. *gutuna, Maria Serapia serorari, (SERAPHIA), 1856-XII-20:*
 "Ez daquit aita jinen denez Sabinaren habituaren harçeco egunian. Besta hautan uste dut gostako çaco Adela-ren ustia. Othoitz gauçac ontsa joan diton. Adio, haurra; bethi alaguera eta corayos". (...)

"Egun ahispa ikusi dut; etcheco berriac baitu; arras ontsa dira; unione eta uros; guçiac content. Aita içan da Montorin Sabinaren icusten; ontsa causitu du arras. Bedakiçu han Biarnoco asken herria dela Montori; antic behera, Atharratce. Otoits guretaco. Adio, haurra".

149. *gutuna, Maria Serapia serorari (SERAPIIA), 1858-I-19:*
 "Sabina ere ontsa duçu diotenaz; ez dut ikusi nihauc bacantcetaz gueros. Aita era ontsa dela erran dauret. Bagneresen den hura ez dakit nola den; content da, us-te dut; erregretatcen dut une partetic Jaincoaren borondatea bada, plazer dut.

Adio haurra; izan bethi Jaincoaren borondateari oro eroria; bethi umore on, bethi content. Çuretçat egun guciez galdeiten diot gure aita cerukoari; çuretçat benedictione suerte guciak; zuc ere othoitz guretçat. Bihar errangogo diot çure ahispari iskribatu dauçudala; plazer duke. Badakisu çombat maitecicien ahispa bezala eta anhitz guehiago serora beçala" (...)

"Çure letrac anhitz plazerkin errecebitu ditugula; ez du-da; nahi bada ez guiren bethi fidel erepostu egyiteco. Içan otsa; bedi bethi bizi Jesus gure bihotzetan".

169. *gutuna, Ahizpa Serapia, Gurutzearen Alabari 1858-XI-20:*
 "Barca eta içan bethi haur ona, content eta constant; çure ahispari iskribatu beharra niz; ontsa da; Caraman

da; adio, othoiz Jainco huna enetçat; nik ez çaitut ahansten”

(...) “İçan bethi uros”.

285. gutuna, *Abizpa Serapia, Gurutzearen Alabari, 1860-X-10:*

“Je vous aime tous (toutes les Filles de la Crois, en particulier **eskualdunac**) dans les entrailles de Jésus-Christ”...

(...) “mila goaintcy ene paartez; otoiith deçan enetaco; çuc ere bai gauça bera (...)

316. gutuna, *Abizpa Serapia, Gurutzearen Alabari, 1861-III-22:*

“Dans son intérieur sans doute, souffrance immense! mais sans aigreur, plainte, murmure, indignation batere phixic, zer nahi sendituric ere; oro ezti, caritatos eta sumisa a la volonté de Dieu, heureuse de la volonté de Dieu, quoique cette volonté fut bien amère pour elle. Quelle Fille de la Croix!” Haurra, çu içan bethi holakoa.

“Apprener de plus en plus à trouver dans la volonté de Dieu le même bonheur que Marie, falta gabe, haurra; bacindeki cer placer eguin dautan çure lettrac; berri on hanitz”.

(...) “ni ere eta ez guti. Courage beraz eta bethi aitzina”.

(...) “Sei igorri tit Casimir Cotiart bat; arras content partitu dira. Priez et demandez à bonnes Supérieures et compagnes des prières pour ces chers voyageurs; çuetako ere; adio, haurra”.

347. gutuna, *Abizpa Reine..., Gurutzearen alabari, 1861-XII-27:*

(...) “halabiz. Aintcina beraz eta ez secula guibelerat beha, etxaminatceco ere: ez da dudanic Jaincoac beretaco nahi cituela; çure ahispari ere bi hitz, iskiribatu behar diot; onsa da arras, izan zu ere onsa eta uros hura beçala. Adio, haurra; othoitz guretçat, nic guti iskiribaten dut, bainan egun guciez othoisten. Enetaco hola”.

352. gutuna, *Abizpa Serapia, Gurutzearen Alabari, 1862-I-7*:
"Quand vous écrirez à ma Soeur Séraphique à Caraman, mila goraintcy, urthe on avec mes meilleurs soubaits; [ez çaiestet ahancen] ez çu, ez hura, ez çure beste gentiak, aita, ahispac...".

445. gutuna, *Bibotz Sakratuaren Anaietako bati, (Data gabe)*:
"Bedi bethi bici Jesus gure bihotcean; Bertcea secula".

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra